



# ZURE ESKULIBURUA LISBOAKO TRATATUARI BURUZ




EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO



EUROPAKO  
BATZORDEA

# AURKIBIDEA



SARRERA .....	1
XXI. MENDERAKO BATASUNA .....	2
LISBOAKO TRATATUAREN XEDAPEN NAGUSIAK .....	4
INFORMAZIO GEHIAGO .....	10
Lisboarako bidean .....	11
Erakundeetan gertatu diren aldaketak: informazio gehiago .....	12
Termino tekniko batzuk .....	15



Europako Batzordea  
Komunikaziorako Zuzendaritza Nagusia  
Argitalpenak  
B-1049 Brusela

Jatorrizko testua 2009ko uztailen amaitu zen.

Copyright-a: azala Grupo © Getty Images – Bostekoa © Corbis, 1. orr. iStockphoto, 2. orr. iStockphoto (Joerg Reimann), 4. orr. iStockphoto, 6. orr. iStockphoto (Emrah Turudu), 7. orr. Europako Batzordea/ECHO, 8. orr. Europako Batzordea, 10. orr. Reporters, 12. orr. Europako Parlamentua, 15. orr. iStockphoto (Mikael Damkier).

Jatorrizko argitalpena: © Europako Erkidegoak, 2009

Luxenburgoko: Europar Batasuneko Argitalpen Bulegoa, 2009

Jatorrizko eskuliburua sarean ere badago eskuragai, beste hainbat informazio zehatz eta argirekin batera, helbide honetan: [ec.europa.eu/publications](http://ec.europa.eu/publications)

Erreproduzioa baimenduta dago. Argazkiak erreproduzitzeko edo edonola erabiltzeko, egile-eskubideen jabeen baimena eskatu beharko da.

Argitaraldia:	1.a, 2009ko abendua
Ale-kopurua:	2.000
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Lehendakaritza Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia
Internet	<a href="http://www.euskadi.net">www.euskadi.net</a>
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Euskarazko itzulpena:	Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP/HAAE) Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala
Fotokonposizioa:	Rali, S.A.
Inprimaketa:	Estudios Gráficos Zure, S.A.
Lege-gordailua:	BI-3371-09

Dokumentu hau Eusko Jaurlaritzak itzuli du euskarara, eta berak ere egin ditu horren edizioa eta banaketa-lanak. Europako erakundeek, beraz, ez dute horretan erantzukizunik.

# SARRERA

Hamaika gerratan hainbeste milioi lagun galdu eta gero, Europar Batasuna (EB) sortu izanak garai berri baten ataria zabaldu zuen, eta, harrez geroztik, Europako herrialdeek elea zuten erabili beharra, eta ez armak, arazoak konpontzeko.

Gaur egun, Europar Batasuneko (EBko) kideek hainbat eta hainbat abantaila daukate: merkatu librekoa, salerosketan erraz eta hobeto aritzeko moduko txanpona, milioika lanpostu berri, lan-gileen eskubideen hobetzea, pertsonen zirkulazio librekoa eta ingurumen garbiagoa.

Alabaina, gaur egungo arauak garai hartako EBrako daude pentsatuak. Orduan Batasuna askoz txikiagoa zen, eta ez zuen mundu mailako erronkarik, esate baterako, aldaketa klimatikoak, mundu-mailako ekonomia-atzeraldia edo mugez gaindiko nazioarteko delinkuentzia. EBk badu arazo horiei aurre egiteko ahalmena, hartara jarria dago, baina nekez egingo du ezer, ez badu orain baino hobeto lan egiten.

Horretarakoxe da Lisboako Trataturia, EB demokratikoagoa, eraginkorragoa eta gardenagoa izatea lortuko du, aldi berean, herritarrei eta estatuetako legebiltzarrei Batasunean gertatzen denari buruzko informazio gehiago emango die, eta Europa osoari munduan hitz egiteko ahots argiagoa eta ozenagoa emango dio, estatuetako interesak babestez batera.

Lisboako Trataturiak «herritarren ekimena» ere badakar mahai gainera, izan ere, milioi bat sinadura aurkeztuta, Europako Batzordeari legegintzako proposamen berriak aurkezteko gonbitea egin baitakioke.

EBko arauak onartu aurreko bidean, Batasuneko estatuetako legebiltzarrek orain baino zeregin garrantzitsuagoa izango dute haiek aztertzen; eta, horrela, lehen baino ziurrago jakingo dute EBk ez dituela bere eskumenak gainditzen estatuetan edo herrietan aztertu beharreko gaietan.

Europako Parlamentuak orain baino eskumen gehiago izango ditu eta legebiltzarkideek —zuk zeuk aukeratzen dituzun horiek— zeresan handiagoa izango dute, orain baino gai gehiagotan.

Nizako Trataturian hala aurreikusi ez zen arren —Nizakoa baitago gaur egun indarrean—, Batzordeak aurrerantzean ere Batasuneko estatu bakoitzeko komisario bana izango du.

Eskuliburu honetan, Lisboako Trataturiak zuretzat —herritar modura— zer esan nahi duen azalduko dugu.



# XXI. MENDERAKO BATASUNA

Lisboako Tratatua Batasuneko hogeita zazpi estatuek sinatu zuten, 2007ko abenduaren 13an.

Tratatua indarrean sartuko bada, EBko estatu guztiek berretsi egin behar dute, bakoitzak bere prozedura erabiliz.

## Zergatik behar dugu beste tratatu bat?

EBk eboluzionatu egin du. Lehen baino lau bider estatu kide gehiago ditu. Azken bost urteotan bertan, kideen kopurua ia-ia bikoiztu egin da.

Mundua ere abaila bizian ari da aldatzen. XXI. mendean, Europak oso erronka handiak ditu ate joka: krisi ekonomikoa, aldaketa klimatikoa, garapen iraunkorra, energia-horniketa bermatu beharra eta mugaz gaindiko nazioarteko delinkuentzia borrokatu beharra.

Lisboako Tratatua taxutu zuten estatu kideek ikusi zuten Europar Batasunak ez zituela, gaur egungo tratatuak eskuan hartuta, premia horiei erantzuteko eta egin beharreko aldaketak egiteko beharrezko tresnak.

- Lisboako Tratuak EBko aurreko tratatuak aldatu eta eguneratu egiten ditu.
- Tratatuan kontuan hartu da hasiera batean EB sei estatuk sortu zutela, baina gaur egun hogeita zazpi kide dituela eta azken berrogeita hamar urteotan aldaketa asko gertatu direla.
- Batasuneko hogeita zazpi estatuetatik den-denetan onartzen bada, Tratuak lan-metodoak hobetu egingo ditu, eta, orduan, Batasunak XXI. mendean ahalik eta zuzenen eta ondoen lan egiteko modua egongo da.
- Tratu honen bidez, EBk herritarren interesak hobeto defendatu ahal izango ditu, herritarren ekimen berriaren bitartez herritarrei emango baitie hitza Europako gaien inguruan.
- Oinarrizko Eskubideen Gutunari esker, herritarren eskubideak hobeto babesten ditu.
- Europako Parlamentuaren zeregina indartu egiten du eta estatuetako legebiltzarrei beste eskumen batzuk ematen dizkie.
- Europa-mailan erabakiak hartzeko prozedura lehen baino eraginkorragoa izango da.
- Europar Batasunak munduan aho bakar batez hitz egiteko lagungarria da.

- Neurri berriak dakartza gure bizi-kalitatean eragina duten hainbat arazo larri konpontzeko, hala nola, aldaketa klimatikoa, mugez gaindiko delinkuentzia eta energia.
- Aldi berean, estatu kide guztien eskubideak babesten ere badaki, batez ere, kontu bereziz landu beharreko gaietan, adibidez, zerga-sisteman eta defentsan.

## EBren helburuak eta balioak

Lisboako Tratatuan garbi-garbi dago adierazita zein diren Europar Batasunaren helburua eta balioak: bakea, demokrazia, giza eskubideekiko begirunea, justizia, berdintasuna, Zuzenbide Estatuak eta iraunkortasuna.

Tratatuan, garbi-garbi jartzen du Europar Batasunak zer egin behar duen:

- Herritarrei askatasunerako, segurtasunerako eta justiziarako leku bat eskainiko die, barruko mugarik gabe.
- Europaren garapen iraunkorraren alde egingo du lan. Horretarako, alderdi hauek izango dira oinarri: ekonomia-hazkunde orekatua eta prezioen egonkortasuna; merkatuko ekonomia soziala, lehiakortasun handikoa, eta enplegu betea eta gizartearen aurrerabidea jomuga dituen; eta ingurumenaren babes handia.
- Gizarte-bazterkeriaren eta -bereizkeriaren aurka egingo du borroka, eta gizarte-justizia eta -babesa bultzatuko ditu.
- Estatu kideen arteko ekonomiaren, gizartearen eta lurraldeen kohesioa eta elkartasuna bultzatuko ditu.
- Aurrerantzean ere ekonomia- eta moneta-batasunaren alde egiten jarraituko du, euroa moneta izanik.
- Munduarekiko harremanetan, bere balioak berretsi eta sustatuko ditu, eta lagunduko du lortzen bakea, segurtasuna, planetaren garapen iraunkorra, herrien arteko elkartasuna eta errespetua, merkataritza libre eta zuzena, eta pobretasuna ezabatzea.
- Beste helburu hauek ere lagunduko du lortzen: giza eskubideak —batez ere haurren eskubideak— babestea, nazioarteko zuzenbidea zorrotz bete eta garatzea, eta, bereziki, Nazio Batuen Gutunaren printzipioen errespetua.

Funtsezko helburuak dira. Izan ere, Lisboako Tratatuak EBri helburu horiek lortzeko baliabideak emateko dago pentsatuta.



# LISBOAKO TRATATUAREN XEDAPEN NAGUSIAK

## Demokrazia gehiago, ate-leihoak zabalduago

Tratatuari esker, erabakiak hartu behar direnean, zure ahotsa ozenago entzungo da.

**Herritarren ekimen** berriak haxe dakar: estatu kide guztien artetik milioi bat lagun batuz gero —eta 500 milioi lagun gara guztira—, Europako Batzordeari eskari bat egin dakiokela, legegintzako proposamen berriak aurkez ditzan.

Hartara, lehendabizikoz, zuk zeuk ere izango duzu, zuzen-zuzenean, EBko legegintzan zer esana.

EBk erabakiak nola hartzen dituen jakiteko informazioa hobetze aldera, legegintzako proiektuak aztertu eta bozkatzen dituzenean, aurrerantzean, Kontseiluak jendaurreko bilkurak egin beharko ditu.

Lisboako Tratatuaren eraginez, erabakiak hartzeko orduan, **Europako Parlamentuak** eta **Kontseiluak** lehen baino esparru gehiagotan aritu beharko dute eskuz esku. Horrek esan nahi du zuzenean zuk zeuk aukeratzeko dituzun eurodiputatu horiek zeresan handiagoa izan dezaketela EBko legegintzaz eta aurrekontuaz.

**Estatuetako legebiltzarrek** ere lehen baino aukera gehiago izango dituzte EBko erabakiak hartzeko prozeduran zuzen-zuzenean parte hartzeko.

Alerta-sistema bizkor bat jarriko da martxan, eta, haren bidez, estatuetako legebiltzarrek eskubidea izango dute legegintza-proiektuen inguruan iritzia emateko eta ziur jakiteko ea EB, estatuetan edo herrietan hobeto ebatziko liratekeen gaiak esku artean hartuta, eskumenez haraindi ote dabilen edo ez.

## Erabakiak hartzeko orduan arinago eta zuzenago ibiliko gara

Lisboako Tratatuak EBren erabakiak hartzeko prozedurak arrazoi legez antolatzen ditu.

Kontseiluan, lehen baino **erabaki gehiago hartu beharko dira gehiengo kualifikatuz**, eta ez aho batez. Eta, horrela, bizkorrago eta zuzenago ibiliko gara.

Gehiengo kualifikatuak hauxe esan nahi du: 2014tik aurrera Kontseiluaren erabakiak estatu kideen % 55ek onartu beharko dituela, baina estatu horiek, gutxienez, europarren % 65 bildu behar dutela. Horrela, erabakiek zilegitasun bikoitza izango dute.


EBko arlo politiko berrietan erabakiak gehiengoz hartzea nahi bada, oso arau zorrotzak bete beharko dira. Halako aldaketarik egin nahi izatera, estatu kide bakoitzak esan beharko du ados dagoela, eta estatuetako legebiltzarrek beto-eskubidea izango dute.

Edonola ere, garrantzi handiko esparru politikoetan, hala nola zerga-sisteman eta defentsan, erabakiak aho batez hartu beharko dira.

## EBko erakundeak modernizatzea

Lisboako Tratatuaren helburu nagusietako bat, hain zuzen ere, EBn agintzen duten erakundeak modernizatzea eta demokratikoagoak egitea da.

EBk nazioartean egiten duen lana sustatzearren eta EBren interesak eta balioak kanpoan hobeto defendatzearren, kargu berri bat sortuko da: **Atzerri eta Segurtasun Politikarako Batasuneko goi-ordezkarria/Batzordeko lehendakariordea**.



Kontseilu Europarraren lanak etenik izan ez dezan eta koherentea izan dadin, **Kontseilu Europarrak** berak aukeratuko du bere **lehendakaria**, gehienez ere bost urterako. Horrela, EBren ekintzak ikusterrazagoak eta koherenteagoak izango dira.

Batzordeko lehendakaria Europako Parlamentuak aukeratuko du, Kontseilu Europarraren proposamenez.

EBren aurreko beste tratatueta jasota datozen ekonomia-xedapen asko eta asko berretsi eta eguneratu egiten ditu Lisboako Tratatuak. Gainera, beste esparru garrantzitsu batzuk ere gehitu ditu. Jarraian dituzue aipaturik.

## Ekonomia-politika

Lisboako Tratatuan jartzen duenez, aurrerantzean ere ekonomia- eta moneta-batasunaren alde egiten jarraituko dugu, euroa EBko moneta izanik.

Gaur egun, hamasei estatu kideren moneta da euroa.

EBren funtsezko helburu bat ekonomia- eta moneta-batasuna da. Berebiziko garrantzia du Europa oparotasunera eta enplegura itzultzeak. Gaur egungo finantza-krisia dela-eta, EBk eta estatu kideek, denek batera, 200.000 milioi euro erabili dituzte ekonomiaren suspertzea finantzatzeko.

Tratatuaren ondorioz, Europako Banku Zentralak formalizaturik izango du zein leku betetzen duen, Europar Batasuneko erakunde bihurtzen baitu.

## Europar Batasuna eta mundua

Europar Batasunak agertu du bere balioak munduan zehar sustatzeko konpromisoa, helburu hauek lortzen laguntzearren:

- Bakea eta segurtasuna.
- Lurraren garapen iraunkorra.
- Herrien arteko elkartasuna eta errespetua.
- Merkataritza libre eta bidezkoa.
- Pobrezia ezabatzea.
- Giza eskubideen alde egitea.
- Nazioarteko Zuzenbidea errespetatzea eta hobetzea, batez ere Nazio Batuen Gutunean definiturik dagoen moduan.

EB dugu mundu osoko merkataritza-potentziarik handiena eta garapen-bidean diren herrialdeetara laguntza gehien ematen duena.





Lehen aipatu dugunez, beste kargu bat sortuko da: Atzerri eta Segurtasun Politikarako Batasuneko goi-ordezkaria/Batzordeko lehendakariordea. Bada, horrela, Europar Batasunaren kanpoko lanari koherentzia handiagoa emango zaio eta kanpoan aho bakar batez hitz egiteko aukera izango du. Goi-ordezkariak kanpo-ekintzarako zerbitzu bat izango du lagungarri, beren beregiz sortua.



## Segurtasuna eta defentsa

Lisboako Tratatuak lehen baino argiago definitzen du EBk zer duen esan-egiteko kanpo-arazoetan eta segurtasun-politikan. Defentsa-kontuetan, aurrerantzean ere EBko hogeita zazpi estatu kideek erabakiak aho batez onartu beharko dituzte.

EBk hainbat misio abiarazi du bere lurraldetik kanpora, denak ere bakea apurtzen ez uzteko, gatazkei aurrea hartzeko eta, Nazio Batuen Gutunaren itzalpean, nazioarteko segurtasuna indartzeko.

Tratatuak EBren zereginak areagotu egiten ditu, beste zeregin hauek ere agintzen baitizkio: desarme-operazioak, gai militarretan aholku-lana eta laguntza-lana, eta gatazkak amaitu eta gero ingurua egonkortzen laguntzea.

Beste aukera bat ere badakar defentsa-kontuetan estuago lan egin nahi duten estatu kideentzat, hau da, haien artean lankidetzat indartsuagoa antolatzeak aukera.

Tratatuak dio estatu kideek EBri atzerri-politika eta denon segurtasun-politika gauzatzeko beharrezko gaitasun zibila eta militarra eskaini behar diotela. Europako Defentsa Agenciaren zeregina ere zehazten du.

Tratatuan, elkartasunerako klausula bat ere badator (borondatezkoa), Batasuneko estatuaren batean eraso terroristaren bat edo hondamendiren bat gertatzen denerako, naturak ala gizakiak eragindakoa.

## Justizia eta delinkuentzia

Tratatuan hainbat xedapen berri eta garrantzitsu dago, EBri ahalmen handiagoa emateko mugaz gaindiko nazioarteko delinkuentziaren aurka, legez kanpoko inmigrazioaren aurka, gizakion salerosketaren aurka eta arma eta drogen trafikoauren aurka borroka egiteko.

Lisboako Tratatuak proposatzen duen sinpletze-lanari esker, arlo honetan gardentasun handiagoa lortuko dugu, Europako Parlamentuaren eta Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiaren zeregina indartu egingo da, eta erabakiak bizkorrago hartu ahal izango ditugu, lehen baino erabaki gehiago hartu daitezkeelako gehiengo kualifikatuz.

Xedapen berri horien eta beste batzuen ondorioz, Batasunak eta estatu kideek hobeto babestu ahal izango dituzte Batasunaren finantza-interesak eta hobeto borrokatu ahal izango dute mugez gaindiko nazioarteko delinkuentziaren aurka.

Xedapen berri horiek ez dituzte estatu kideen lege-sistemak eta -tradizioak ahaztu, eta zor zaien errespetua gorde diete. Esate baterako, «larrialdietarako galga» moduko bat sortu da, zeinaren bidez edozein estatu kide izango baitu aukera atzera egin eta neurri jakinen batean ez parte hartzeko, uste badu dena delako neurri horrek bere zigor-sistemaren funtsezko alderdiak ukituko dituela.

Salbuespen modura, Irlandan eta Erresuma Batuan, ohiturazko zuzenbidea daukate-nez eta ez dutenez mugak kontrolatzeko Schengen sisteman parte hartzen, akordio berezi bat izango dute eta kasuan kasu erabaki ahal izango dute arlo honetako lege-dian parte hartuko duten edo ez.

## Gizarte-politika

Lisboako Tratatuak EBren gizarte-helburuak indartu egiten ditu, eta zehazten du EBk, politika eta ekintza guztietan, enplegu-maila handia lortzeko ahalegina izan behar duela beti gogoan.

Hainbat zerbitzu ekonomikoren funtsezko zere-gina ere onarturik geratu da, adibidez, garraio publikoarena, telekomunikazioena, posta-zerbi-tzuena eta gas- eta elektrizitate-horniketarena.

Kontu horietan, EBk egin dezakeena mugatu-rik dago, estatuek oso jokaleku zabala baitaukate beren barruko beharrei ondo erantzuteko zerbi-tzuak eskaini, martxan jarri eta antolatzerakoan.

Interes orokorreko zerbitzuak eman behar horre-tan, esate baterako osasuna, gizarte-zerbitzuak, polizia eta segurtasun-indarrak edo irakaskuntza publikoa, EBk kontuz ibili behar du, estatuen esku dauden zereginetatik ezer kendu gabe.

Soldatak, elkartzeko eskubidea eta greba-eskubidea aurre-rantzean ere estatuen eskumenekoak izango dira.



## Lankidetzarako esparru berriak

Tratatuan esparru politiko berri batzuen inguruko hainbat xedapen garran-tzitsu dago, EBri ahalmen handiagoa emateko mugaz gaindiko nazioarteko delinkuentziaren aurka, legez kanpoko inmigrazioaren aurka, emaku-meen eta umeen salerosketaren aurka eta arma eta drogen trafikoaren aurka borroka egiteko.

Gaur egungo munduan, badira beste bi gai bereziki kontuan izan beharrekoak:

**Aldaketa klimatikoa:** EBk, helburu modura, Europaren garapen iraunkorra lortu nahi du, ingurumena txukun babestu nahian eta hobetu beharrean oinarriturik, eta Tratatuak lehentasuna ematen dio helburu horri.





# INFORMAZIO GEHIAGO

Jakina, Lisboako Trataturia dokumentu luzea da; 300 orri baino gehiago ditu bertsio finkatuak, eranskinak eta protokoloak barne, Europar Batasuneko aurreko trataturietako hainbat xedapen jasota, aldatuta eta eguneratuta.

Gida honetan, Lisboako Trataturiko elementu berriei erreparatu diegu batez ere. Jarraian funtsezko aldaketa batzuei buruzko informazio gehiago bildu dugu.

Nahi izanez gero, deskargatzeko moduan daude Lisboako Trataturiko testu osoa eta Lisboako Trataturiak aldarazi dituen trataturien bertsio finkatuak. Testuok deskargatzeko edo informazioa osatzeko, jo hona: [europa.eu/lisbon\\_treaty/full\\_text/index\\_es.htm](http://europa.eu/lisbon_treaty/full_text/index_es.htm).

## Lisboarako bidean

XXI. mendeko erronkei aurre nola egin 6 urtez eztabaidan ibili ondoren onartu zuten estatu kideek Lisboako Tratatua.

**1952:** Pariseko Tratatua, Ikatzaren eta Altzairuaren Europako Erkidegoa eratu zuena.

**1957:** Erromako Tratuak, Europako Ekonomia Erkidegoa eta Euratom-a eratu zituztenak.

**1986:** Europako Akta Bakarra.

**1992:** Maastricht-eko Tratatua.

**1997:** Amsterdam-eko Tratatua.

**2001:** Nizako Tratatua.

**2004ko urriaren 29a:** Europarako Konstituzioa eratu zuen Tratatua, estatu kideek Erroman sinatu zutena.

**2005eko maiatza-ekaina:** Frantziak eta Herbehereek uko egin zioten Tratuari, erreferendum bidez.

**2007ko abenduaren 13a:** Lisboako Tratatua sinatu zuten hogeita zazpi estatu kideek.

**2007–2009ko maiatza:** Hogeita zazpi estatu kideetatik hogeita seik Lisboako Tratatua berretsi zuten, estatuetako legebiltzarren bidez.

**2008ko ekainaren 12a:** Irlandako erreferendumaren emaitzak ezinezko egin zuten berrespenaren aldeko gehiengoak lortzea.

**2009ko ekainaren 19a:** Kontseilu Europarrak xedatu zuen Europako Batzordeak estatu kide bakoitzeko herritar bat eduki beharko duela aurrerantzean ere. Estatu-edo gobernu-buruek berme juridiko lotesleak adostu zituzten Irlandako agintariek adierazitako gai berezi batzuetan, esate baterako, fiskalitatean, bizitzeko eskubidean, hezkuntzan eta familian, eta neutraltasun militarren aldeko politika irlandar tradizionalan. Berme horiek protokolo moduan sartuko dira EBko Tratatuetan, Lisboako Tratatua indarrean jartzen denetik aurrera. Adierazpen nagusi bat ere onartu zuten, langileen eskubideen eta zerbitzu publikoen garrantziaren inguruan.

**2009ko urriaren 2a:** Irlandako bigarren erreferenduma.

# Erakundeetan gertatu diren aldaketak: informazio gehiago

## EBko erakunde eta organoak

Hauek dira EBko erakunde nagusiak:

- Europako Parlamentua
- Kontseilu Europarra
- EBko Kontseilua (Ministroen Kontseilua)
- Europako Batzordea
- Europar Batasuneko Justizia Auzitegia
- Europako Banku Zentrala
- Kontu Auzitegia

Eta ondoko hauek ere EBko organoak dira:

- Eskualdeetako Komitea
- Europako Ekonomia eta Gizarte Komitea
- Inbertsioen Europako Bankua

### Europako Parlamentua

Europar Batasunaren barruan, estatu kideetako herritarrak ordezkatzan dituen erakundea da Europako Parlamentua. Diputatuak zuzeneko bozketa bidez aukeratzen dira.

Lisboako Tratatuaren eraginez, Parlamentuak esparru gehiago izango ditu, Kontseiluarekin batera, bere lege-jarduera egiteko, eta aurrekontuetan daukan boterea ere sendotu egingo da.

Parlamentuaren eta Kontseiluaren arteko botere partekatuari «elkarren artean erabakitzea» esaten zaio.

Elkarren artean erabakitzea izango da «ohiko legegintza-prozedura». Eta bestelako arlo politikoetara ere zabalduko da, adibidez, askatasun, segurtasun eta justiziara.

Hartara, Europako Parlamentuaren lege-eskumenak sendotuta geratuko dira.

EBko aurrekontuak onesteko orduan ere zeregin garrantzitsua emango dio Tratatuak Europako Parlamentuari.

### Kontseilu Europarra

Kontseilu Europarra estatu kideetako maila goreneko ordezkari politikoek osatzen dute; alegia, gobernu-buruek eta botere betearazlea daukaten estatu-buruek.

Kontseilu Europarrak markatzen du EBren norabide politikoa, bai eta lehentasunak zein izango dituen ere.

Lisboako Tratatuaren bitartez, Kontseilu Europarra Europar Batasuneko erakunde bihurtzen da, erabat eta guztiz, eta zehatz-mehatz finkatuta geratuko da zein den bere papera.

Kargu berria sortuko da: Kontseilu Europarreko lehendakaria.

Kontseilu Europarreko kideek aukeratuko dute Kontseilu Europarreko lehendakaria, eta, gehienez, bost urtez egon ahal izango da karguan.

Hortaz, Kontseilu Europarraren bileretako buru izango da, erakunde horren lanen alde egingo du, lanok aurrera jarrai dezaten, eta EBren ordezkari gorena izango da kanpoan.

Horren eraginez, gaur egungo sistema aldatu egingo da; orain arte EBko lehen-

dakaritzan (sei hilabetez) zegoen estatua Kontseilu Europarrean ere lehendakari egoten baitzen.

Kontseilu Europarreko lehendakari berriak EBren ekintzak agerikoagoak eta koherenteagoak bihurtuko ditu.

## Kontseilua

Europar Batasuneko Kontseiluari Ministroen Kontseilua edo, besterik gabe, «Kontseilua» esaten zaio. Hogeita zazpi ministrok osatzen dute, ministro bakoitza bere estatuko gobernuaren ordezkari dela.

Erabakiak hartzeko erakunde ezinbestekoa da. Europar Batasuneko politika ekonomikoak koordinatzen ditu eta funtsezko zeregina dauka atzerri-eta segurtasun-politikan.

Gainera, Europako Parlamentuarekin batera, lege-arauak eta aurrekontuak onartzeko boterea ere badauka.

Erabakiak aho batez hartu beharren, ohikoagoa izango da erabakiak gehiengoz hartzea.

2014. urtetik aurrera, «gehiengo bikoitza» esaten zaion sistema jarriko da martxan. Kontseiluaren erabakiek estatu kideen % 55en aldekotza beharko dute (ehuneko hori, aldi berean, gutxienez, Europako herritarren % 65 izanik). Sistema horri esker erabakiek zilegitasun bikoitza edukiko dute.

Tratatuak dakarren beste berritasun baten arabera, Atzerri eta Segurtasun Politikarako Batasuneko goi-ordezkaria/Batzordeko lehendakariordea izango da lehendakari Atzerri Arazoetako Kontseiluan.

Beste zenbait arlotan, esate baterako, nekazaritzan, energian eta ekonomian, Batasuneko sei hilabetezko txandan lehendakari den estatuko ministroa izango da Kontseiluko buru.

Hala, Europar Batasuneko lehendakartzaren sistema koherenteagoa eta eraginkorrago izango da.

## Atzerri eta Segurtasun Politikarako Batasuneko goi-ordezkaria/Batzordeko lehendakariordea

Lisboako Tratatuaren bidez, kargu berri bat sortuko da atzerriko arazoak eta EBko segurtasun-eta defentsa-politika bideratzeko. Atzerri eta Segurtasun Politikarako Batasuneko goi-ordezkaria, aldi berean Batzordeko lehendakariordea izango dena, izendatu izana aurrera pauso handia da oso. Horretarako, oraingo bi kargu konbinatuko dira: Atzerri eta Segurtasun Politika Erkideko goi-ordezkaria eta Kanpo Harremanetarako komisarioa.

Kontseilu Europarrak izendatuko du kargu hori okupatuko duen pertsona, eta, kargu horretaz gain, Kanpo Arazoetarako Ministroen Kontseiluaren lehendakaritza eta Europako Batzordeko lehendakariordetza ere bere gain izango ditu. Goi-ordezkariak proposamenak aurkeztuko ditu, atzerri-politikaz arduratuko da kontseiluaren izenean, eta Batasunaren jarrera defendatuko du nazioartean.

Hala, Europar Batasunak hobeto defendatuko ditu bere interesak eta bere balioak nazioartean, eta aho bakar batez mintzatuko da.

## Europako Batzordea

Europako Batzordearen zeregina da EB osoaren interesen ordezkari izatea, inori lotu gabe.

Batzordea Europako Parlamentuaren ardurapekoa da.

Europar Batasunean, erakunde hauxe da bakarra lege-proposamenak abiarazteko eskumena daukana.

Batzordeak, gainera, Batasunaren politikak gauzatzeko, aurrekontua erabiliko dela bermatzen du, EBko programak kudeatzen ditu, nazioarteko negoziazioetan EBren ordezkari da, eta tratatu guztiak behar bezala aplikatu daitezkeen ahalgintzen da.

Kontseilu Europarrak 2008ko abenduan eginitako goi-bileran, estatuetakoko edo gobernuetakoko buruek erabaki zuten Batzordean estatu kide bakoitzeko herritar bat egongo zela aurrerantzean ere.



## Zereginen banaketa

Lisboako Tratatuak ondo bereizten du:

- Zein diren EBren eskumenak.
- Zein diren estatu kideen eskumenak.
- Zein eskumen diren denen artekoak.

Tratatuak are zehatzago finkatzen ditu **EBren eskumenen mugak**.

Oinarritzako arauetako bat da EBk estatu kideek emandako eskumenak izango dituela, horiexek eta ez besterik, eta errespetatu egin beharko duela eman gabeko gainerako eskumenak estatu kideenak direla oraindik ere.

- Lehiari buruzko arauak, euroaren eremuko moneta-politika eta merkataritzako politika erkidea Europar Batasunaren eskuetan daude erabat.
- Estatu kideak izango dira arduradun nagusiak bestelako politika batzuetan, esate baterako, osasunean, hezkuntzan eta industrian.
- Europar Batasunak eta estatu kideek erdi bana izango dituzte eskumenak barne-merkatuko gaietan, nekazaritzan, garraioan eta energian, besteak beste.

## Bestelako xedapenak

Tratatuak aditzera ematen du **EBk izan behar duen begirunea estatu kideen arteko berdintasunari dagokionez**, baita bakoitzaren izaera nazionalari ere, herrien eta eskualdeen autonomia barne. Halaber, Europako aniztasun kulturala eta linguistikoa babesteko konpromisoa izango du.

Lehenengo aldiz, xedatu du **estatu kide batak aukera izango duela Europar Batasunetik ateratzeko**, hala nahi badu, eta kasu horretan aplikatuko liratekeen mekanismoak ere zehaztu ditu.

## Estatuetako legebiltzarrentzat eskumen berriak

Lehenengo aldiz, estatuetako legebiltzarrek zuzen-zuzenean hartuko dute parte erabakiak hartzeko prozesu europarrean.

Lisboako Tratatuaren arabera, Europar Batasunaren lege-proposamen guztiak estatuetako legebiltzarretara bidali beharko dira.

Alerta bizkorra pizteko sistema jarriko da martxan eta edozein estatutako legebiltzarrak zortzi asteko epea izango du adierazteko iruditzen ote zaion Europar Batasunak ez lukeela parte hartu behar dena delako proiektu jakin batean.

Estatuetako herrialdeetako legebiltzar nahikok jartzen badute oztoporik, proposamena aldatu egin behar da edo atzera bota.

Alerta bizkorraren sistema horrek paper garrantzitsua emango die estatuetako legebiltzarrei, bermatzeko Europar Batasuna ez dabilela bere zereginen gaintik, ez eta estatuan, eskualdean edo herrian bertan hobeto landu daitezkeen kontuetan ere.



# Termino tekniko batzuk

## Oinarri juridikoa

Lisboako Tratatuak Europar Batasuneko Tratatu eta Europako Erkidegoa Eratzeko Tratatu aldatuko ditu. Europar Batasuneko oinarri juridikoa aldatu eta finkatu duten hainbat tratatutan azkena da.

Lisboako Tratatuaren indarrez, Europar Batasunak izaera juridiko bakarra izango du.

Gaur egun, Europako Erkidegoak eta Europar Batasunak estatus ezberdina daukate, eta ez dituzte arau berberak aplikatzen erabakiak hartzeko orduan. Lisboako Tratatuak saihestu egingo du bitasun hori eta Europar Batasunak bere izaera juridiko propioa izango du.

Aldaketa horri esker, EBk gaitasun handiagoa izango du jarduteko, batez ere, atzerri-politikako kontuetan. Lisboako Tratatuak aukera emango dio EBri eraginkorrago, koherenteago eta sinesgarritasun handiagoz jokatzeko munduarekiko harremanetan.

## Gehiengo kualifikatuaren bidezko bozka, gehiengo bikoitza

Kontseiluan gehiengo kualifikatuaren bidez hartuko dira erabakiak sarri. Lisboako Tratatuaren ondorioz, sistema hori beste hainbat alorretara zabalduko da eta bere funtzionamendua are gehiago definituko da. 2014. urtetik aurrera, Kontseiluaren erabakiek estatu kideen % 55en aldekotza beharko dute (ehuneko hori, aldi berean, gutxienez, Europako herritarren % 65 izanik). «Gehiengo bikoitza» esaten zaio horri. Gutxienez, lau estatu bildu beharko dira blokeo-gutxiengoa eratzeko. Hala, herritar gutxien dituzten herrialdeek oreka handiagoa izango dute estatu kide handienen aldean.

Nolanahi ere, zenbait alorretan aho batezko onarpena ezinbestekoa izango da aurrerantzean ere, adibidez, fiskalitatearen arloan eta defentsan.



## Lankidetza indartuak

Europar Batasuna asko hazi dela jabetuta, Europar Batasunaren Tratatuak (gero Amsterdam-eko Tratatuak eta Lisboako Tratatuak aldatu zutena) zenbait arau ezarri zituen estatu batzuek esparru jakin batean lankidetza indartu nahi bazuten. «Lankidetza indartua» esaten zaio horri.

Lankidetza indartuak adierazten du aukera badagoela herrialde batzuek elkar hartuta jarduteko, hogeita zazpi estatuak bildu beharrik gabe ere. Horrek bidea ematen die ekimen batean parte hartu nahi ez duten estatuari parte ez hartzeko, baina elkarrekin jardun nahi duten beste estatu batzuei horretarako aukera kendu gabe.

## Subsidiariorotasuna eta heinekotasuna

EBren erabakiak herritarrengandik ahalik eta hurbilen hartu behar dira. Bere eskumen eskusiboaren barruan dauzkan esparruetatik kanpo Europar Batasunak ez du inongo lanik egingo, ez bada eraginkorragoa izango delako estatuan, eskualdean edo herrian erabakitakoa baino. Printzipio horri «subsidiariorotasuna» esaten zaio, eta horren alde egin du Lisboako Tratatuak ere, indar gehiago emateko.

Printzipio horretaz gain, heinekotasuna ere aplikatuko da, hots, EBri exijituko zaio soil-soilik Lisboako Tratatuan ezarritako helburuak betetzeko jardutea.

## Elkarrekin erabakitze prozedura («ohiko legegintza-prozedura»)

«Elkarrekin erabaki» esaten zaio Europako Parlamentuak Ministroen Kontseiluarekin, batara eta parez pare, lege-arauak ezartzeko daukan ahalmenari. Lisboako Tratatuari esker, elkarrekin erabakitze prozedura orokorra izango da. Lisboako Tratatuaren eraginez, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak erabakiak elkarrekin hartzea, horixe izango da «ohiko legegintza-prozedura».

Horrek esan nahi du Europar Batasunean erabakiek oinarri bikoitza izango dutela: herritarren zilegitasuna (diputatuen bidez Europako Parlamentuan ordezkatuak), eta estatu kideen zilegitasuna (ministroen bidez Kontseiluan ordezkatuak).



# Nola jarri harremanetan EBrekin



## ■ SAREAN

Europa web-orrian daukazu informazio gehiago, EBko hizkuntza ofizial guztietan: [europa.eu](http://europa.eu)

## ■ AURREZ AURRE



Europa guztian ehunka zentro daude EBri buruzko informazioa emateko. Hurbilen daukazun zentroa bilatzeko sartu webgune honetan: [europedirect.europa.eu](http://europedirect.europa.eu)

## ■ TELEFONUZ EDO POSTAZ



**Europe Direct** Europar Batasunari buruzko edozein galderari erantzuteko prest dagoen zerbitzua da. Zerbitzu horretara jotzeko, deitu doaneko zenbaki honetara **00 800 6 7 8 9 10 11** —edo ordaindu beharreko beste honetara **(32-2) 299 96 96**, EBtik kanpoko deia bada—. Bestela, mezu elektronikoa bidali edo web-orrira ere jo dezakezu: [europedirect.europa.eu](http://europedirect.europa.eu)



## ■ EUOPARI BURUZKO IRAKURGAIK

EBri buruzko argitalpenak klik batean daude Europar Batasuneko Bookshop web-orrian: [bookshop.europa.eu](http://bookshop.europa.eu)

Informazio gehiago nahi baduzu, eta Europar Batasunari buruzko argitalpenen berri jasotzeko, hona hemen zenbait leku interesgarri:

## EUOPAKO BATZORDEAREN ORDEZKARITZAK

### Espainiako ordezkariak

Paseo de la Castellana, 46  
E-28046 Madril  
Tel.: +34 91 4238000  
Fax: +34 91 4238018  
Internet: [ec.europa.eu/spain](http://ec.europa.eu/spain)  
E-mail: [eu-es-docu@ec.europa.eu](mailto:eu-es-docu@ec.europa.eu)

### Bartzelonako ordezkariak

Passeig de Gràcia, 90, 1ª. planta  
E-08008 Bartzelona  
Tel.: +34 93 4677380  
Fax: +34 93 4677381  
Internet: [ec.europa.eu/spain](http://ec.europa.eu/spain)

## EUOPAKO PARLAMENTUAREN BULEGOA

### Espainiako bulegoa

Paseo de la Castellana, 46,  
E-28046 Madril  
Tel.: +34 91 4364747  
Fax: +34 91 5771365  
Internet: [www.europarl.es](http://www.europarl.es)  
E-mail: [EPMadrid@europarl.europa.eu](mailto:EPMadrid@europarl.europa.eu)

### Bartzelonako bulegoa

Passeig de Gràcia, 90, 1ª. planta  
E-08008 Bartzelona  
Tel.: +34 93 2722044  
Fax: +34 93 2722045  
E-mail: [epbarcelona@europarl.europa.eu](mailto:epbarcelona@europarl.europa.eu)

Europar Batasuneko herrialde guztietan daude Europako Batzordearen eta Europako Parlamentuaren ordezkariak eta bulegoak. Europako Batzordeak munduko beste herrialde batzuetan ere baditu delegazioak.

# ZURE ESKULIBURUA LISBOAKO TRATATUARI BURUZ

Hamaika gerratan hainbeste milioi lagun galdu eta gero, Europar Batasuna (EB) sortu izanak garai berri baten ataria zabaldu zuen, eta, harrez geroztik, Europako herrialdeek elea zuten erabili beharra, eta ez armak, arazoak konpontzeko.

Gaur egun, Europar Batasuneko (EBko) kideek hainbat eta hainbat abantaila daukate. Alabaina, gaur egungo arauak garai hartako EBrako daude pentsatuak, baina orduan Batasuna askoz txikiagoa zen, eta ez zuen mundu mailako erronkarik, esate baterako, aldaketa klimatikoa, mundu-mailako ekonomia-atzeraldia edo mugez gaindiko nazioarteko delinkuentzia. EBk badu arazo horiei aurre egiteko ahalmena, hartara jarria dago, baina nekez egingo du ezer, ez badu orain baino hobeto lan egiten.

Horretarakoxe da Lisboako Tratata. EB demokratikoagoa, eraginkorragoa eta gardenagoa izatea lortuko du; aldi berean, herritarrei eta estatuetako legebiltzarrei Batasunean gertatzen denari buruzko informazio gehiago emango die, eta Europa osoari ahots argiagoa eta ozenagoa mundu osoan zabaltzeko, estatuetako interesak babesteaz batera.

Eskuliburu honetan, Lisboako Tratatuak zuretzat -herritar modura- zer esan nahi duen azaldu dugu.

